

JARDUERA SAILKATUEI BURUZKO ORDENANTZA

1999.eko uztailaren 19ko 89. NAO n argitaratua

I. APLIKATZEKO EREMUA

1. artikulua. Udal ordenantza honek arautzen ditu Jarduera Sailkatuen kontrolari buruzko Legean eta Foru Dekretuan gaitzat hartzen direnak, 1961eko azaroaren 30eko Erregelamenduan (GOKA jarduerari buruzkoak) jorratzen direnak eta Arau Osagarriak ematen dituen 1963ko martxoaren 15eko Instrukziokoak, eta bere araudia garatu etaosatzen du Olaztiko Udalak dituen manuak bere harturik.

2. art. Beraz, ondoko instalazio eta jarduera hauek arautuko dira;

a) Udal lizentzia behar duten instalazioak, baldin eta horien tramitazioan eta emakidan, besteak beste, ordenantza honetan adierazi diren mugak eta neurri zuzentzaileak eskatzen badira.

b) Deserosotasunak eragiten dituzten jarduera guztiak, ingurugiroaren osasungarritasun eta higienearen baldintzak aldarazten edo ondare publiko zein pribatuetan kalteak eragiten dituztenak, edo pertsona edo ondasunetarako arriskuak ekartzen dituztenak, horrela sailkatuta egotea gora-behera.

II. JARDUERA UKITUEN SAILKAPENA

3. art. Jarduerak.

Gogaikarriak: Eragiten dituzten asots edo dardaraketengatik, edo egozten edo harrotzen dituzten ke, gas, laino, hauts, usain edo gaiengatik trabak sorrarazten dituztenei erranen zaie "gogaikarri".

Osasungaitzak: Giza osasunari zuzenean nahiz zeharka gaitz egiten ahal dioten gaiak egozten edo jaurtitzen dituztenei erranen zaie "osasungaitz".

Kaltegarriak: Arrazoi berengatik nekazaritza, oihan, abeltzaintza edo arrantza aberastasunari kalte egiten diotenei erranen zaie "kaltegarri".

Arriskugarriak: Eztandak, errekontzak, erradiazioak edo jende nahiz ondasunentzat munta bera duten bertze batzuk direla eta arrisku larriak sorrarazten ahal dituzten gaiak egin, erabili, saldu edo biltegiratzeko xede dutenei erraten zaie "arriskugarri".

III. DISTANTZIAK ETA KOKALEKUAK

4. art. 1961eko azaroaren 30eko GOKA Erregelamenduak bere 4. artikuluan dio: "Osasungaitz edo arriskugarritzat hartu behar diren industria eta fabrikak, oro har, 2.000 metroko tartera baizik ez dira kokatzen ahal, herrigune hurbilenetik".

-Kokalekuari dagokionez, indarra duten arau subsidiarioen eta beroriek garatzeko plan partzialen menpe geldituko dira jarduerak.

-Distantziak ordenantza honetan galdatzen diren mugak betetzeko modukoak izanen dira.

IV. BALDINTZA TEKNIKOAK, MUGAK ETA ZUZENKETA-NEURRIAK

5. art. Azaleraren definizioa.

Ordenantza honi doakionean, azalera da jarduera nagusiari zuzenean dagokiona, bertako langileek erabiltzeko zerbitzuetako lokalena, haien komunena eta are biltegi edo bulego osagarriena ere kenduta, beti ere eremu horiek guztiz eta etengabe bereizita baldin badaude, eta jardueraren xede nagusia deus biltegitratzea ez bada. Horrek ez du erran nahi biltegi horiek ez dietenik men egin behar jarduera osoaren atal diren aldetik bidezko zuzenketa-neurri eta mugei

6. art. Potentziaren definizioa.

Aipatzen diren mugei doakienean, halako jarduera batean, elementu mekaniko mugikorrek dituzten bertako makina finko guztien potentzia mekanikoaren batura da potentzia ezarri osoa. Erauzgailu edo aire- egokigailuen gisara, halako muntadura mekaniko batzuen egitekoa ez baldin bada jardueraren xedeetako, bertako langileak edo bezeroak hobeki egokitzea delako, haien potentzia ez da aipatu kontatekan sartuko. Horrela izanagatik ere, muntadura horiek ere geldi daitezke muntadura osoari eskatzen ahal zaizkion zuzenketa-neurrien menpe.

7. art. Mugak, egoeraren ariora.

1961eko azaroaren 30eko GOKA Jardueren Erregelamenduak arautzen dituen industriak, ondoko sei kokaleku edo egoeratariko batean kokatuko dira:

(Zenbakiak, behetik gora)

1. Industria isolatua.

2. Industrialdea.

3. Pabilioiak, haien egiturazko elementuak bizitegienekin loturarik ez badute.

A) Bizitegietatik 100 m edo gehiagotara dauden pabilioiak.

B) Bizitegietatik 100 m baino gutiagotara dauden pabilioiak, beti ere eraikuntza elementuen artean jarraikortasunik ez bada

4. Bizitegietako sotoak.

5. Beheko oinak, bizitegietako eraikinetan.

6. Goiko oinak, industriarako ez diren eraikinetan edo etxebizitzetarako eremuetan.

Egoera bakoitzean haizu diren jarduerak.

Zenbaki handiagoko kokalekuetan baimentzen diren jarduerak zenbaki tikiagoko egoeretan ere baimendurik daudela ulertuko da, bizitegien distantziari dagokionez, eta orain daudenak nahiz indarra duten ordenamendu planei jarraikiz eraiki daitezkeenak izanen dira.

Arestiko zerrendako egoeren ariora eta GOKA Jardueren Erregelamendua ere aplika daitekeela ahantzi gabe, enpresak ondotik zehazten den gisan kokatzen ahal dira.

1.-Industria isolatua.

2.-Industrialdea.

Jarduera gogaikagarri eta osasungaitz guztiak paratzen ahal dira, mugarik gabe potentziari eta azalerari dagokienez.

3.-Pabilioiak, haien egiturazko elementuak bizitegienekin loturarik ez badute:

a) Bizitegietatik 100 m edo gehiagotara dauden pabilioiak, edo planen ariora halako eraikuntzak egin daitezkeen eremua. Kokaleku mota honetan jarduera gogaikarri eta osasungaitz guztiak paratzen ahal dira, mugarik gabe potentziari eta azalerari dagokienez.

-Zakur zaindegia.

-Aziendategiak.

-Hiltegiak.

-Gorputzak eta larruak idortu eta gazitzeko muntadurak.

-Hiltegiko azpigaiak ustiatzeko industriak.

-Arrain kontserbak prestatzeko industriak.

-Margarinak, olioak, landare-gantzak edo gisakoak eskuratzea.

-Pentsu konposatuak egin eta ehotzea.

-Ongarri organiko nahiz ezorganikoak egitea.

-Urin estearatoak urtzea.

-Animaliazko nahiz landarezko kolak egitea.

-Porlana eta hormigoi egitea.

-Harri xehetzea.

-Kafe xigortzea.

-Industria elektrolitikoak (metalak elektrolisi bidez erdiestea, galvanoplastiako lantegiak, etab.).

-Oro har, hautsak, gasak, asotsak eta usainak eragiteagatik beren kokatuta dauden eremuari traba egiten dioten industria guztiak.

b) Lehenagotik zeuden bizitegietatik edo planen ariora halako eraikuntzak egin daitezkeen eremutik 100 m baino gutiagotara dauden pabilioiak.

Jarduera hauek paratzen ahal dira, mugarik gabe potentziari eta azalerari dagokienez:

.Eraikuntzako industria lagungarriak:

-Harriaren eta marmolaren industria

-Habeak eta eraikuntza gaiak egitea

-Beiraren industriak.

-Aitzinekoen gisako industriak.

.Industria elektro-mekanikoak:

-Tailer mekanikoak, oro har.

-Tailer elektrikoak.

-Forja, txapa-lantegiak eta gisakoak.

Galdategiak talde honetatik kanpora daude.

.Zuraren industriak:

-Zurgindegi mekanikoak.

.Industria kimikoak

-Argazkigintzako laborategiak.

-Laborategi kimikoak.

-Botikagintzako eta lurringintzako laborategiak.

-Koloratzaileak eta pinturak egitea.

-Lisibak eta xaboiak egitea.

-Gantzak urtzeko jarduerak talde honetatik kanpora daude.

.Elikagaien industria:

-Gizakiendako eta aziendendako elikagaiak prestatzea, hil gabe eta hiltegiko gaiak erabili gabe.

-Edariak eta likoreak prestatzea.

-Okintzako prestalekua.

-Gozogintza eta izozkigintzako prestalekua.

-Hestebeteen prestalekua.

-Urdaiazpiko eta hestebeteen idortegia.

-Kafe xigortokiak.

.Garraio eta komunikazio industriak:

-Autobus eta kamioiendako garajeak.

-Ibilgailuak konpontzeko tailerrak.

.Industri biltegiak:

Industri biltegiak

-Besta aretoak:

-Dantza aretoak.

-Diskotekak.

-Ostatu musikadunak eta gisakoak.

-Kafetegiak, ikuskizunak dituztenak.

Josteta aretoak:

-Bingoak.

-Kasinoak eta gisakoak.

4.-Bizitegietako sotoetan dauden jarduerak.

Mota horretako lekuetan honako jarduera hauek paratzen ahalko dira:

.Etxeetako berokuntzako galdarak:

-Berokuntza eta/edo ur bero sanitarioko galdarak, gehienez ere 4.500.000 kcal/h-ko potentzia dutenak.

.Aisia eta josteta establezimenduak, mukuruturik deklaratuako eremuetatik kanpora:

-Whiskitegiak.

-Barra amerikarrak.

-Living-room eta gisakoak.

-Ostatu bereziak.

-Klub, pub eta gisakoak.

Horiek guztiek honako muga hauek bete behar dituzte:

Gehieneko azalera: 200 m² erabilgarri, jendea sartzeko eremuak izan behar duen azalera osoa. Makina elektronikoak dituzten josteta aretoak interferentzien kontrako zuzenketa-neurriak hartu beharko dituzte.

5.-Bizitegi-tako eraikinetan, behe oinetan edo haiei atxikirik kokatu-tako jarduerak.

Mota horretako lekuetan honako jarduera hauek paratzen ahal dira:

.Eraikuntzaren industria osagarriak:

-Tailerrak soilik: beira, iturgintza eta berokuntza, latorria, pintura eta dekorazioa. Industria hauek honako 15 ZP-ko potentziaren muga bete behar dute.

.Industria elektromekanikoak:

-Zerraila, burni eta jostailuen tailerra.

-Eraikuntza eta konponketa elektromekanikoa.

-Aluminio, brontze eta abarreko metal lantegiak.

-Pieza eta moldeak, etab. mekanizatzeko tailerrak

Industria hauek honako 15 ZP-ko potentziaren muga bete behar dute.

.Industria kimikoak:

-Argazkilaritza eta analisi kimikoen laborategiak.

-Tindategiak eta ikuztegiak, familiartekoak eta ez izaera industrialekoak.

Industria hauek honako 15 ZP-ko potentziaren muga bete behar dute. kp on

.Ehungintza:

-Jantzigintza eta apaingintza. Industria hauek honako 15 ZP-ko potentziaren muga bete behar dute.

.Grafikagintza:

-Arte grafikoetako tailerrak, azaleztapena eta erreprodukzioa barne. Industria hauek honako 15 ZP-ko potentziaren muga bete behar dute.

.Zuraren industria:

-Aroztegiak, zurgindegiak eta tapizgintzakoak. Industria hauek honako 15 ZP-ko potentziaren muga bete behar dute.

.Garraio eta komunikazio industriak:

-Etxebizitzetarako eremuetan ez da jarduera honekin ikusteko duen tailerrik paratzen ahal. Industria hauek honako 30 ZP-ko potentziaren muga bete behar dute.

.Industri biltegiak:

Biltegi horiek ez dute elementu finko mekanikorik izanen.

.Aisia eta josteta establezimenduak, mukuruturik deklaraturako eremuetatik kanpora:

-Ostatuak, kafetegiak, tabernak, garagardotegiak eta gisakoak.

-Gozotegiak, txokolategiak, txurrotegiak eta gisakoak.

-Jatetxeak, erretegiak, elkarte gastronomikoak eta gisakoak.

.Ibilgailuak egoteko garajeak:

-Azalera aldetik ez da mugarik, baina debekaturik daude garraiorako kamioi eta autobusak, baita haien zamalanak ere.

.Etxeetako berokuntzako galdarak:

-Berokuntzako eta ur bero sanitarioko galdarak, etxeetan erabiltzeko, potentzia muga hau dutela: 500.000 kcal/h.

.Gorputz heziketa, kirol eta arte martzialetarako establezimenduak:

-Gimnasioak, saunak, gisakoak etab.

6.-Goiko oinak, industriarako ez diren eraikinetan edo etxebizitzetarako eremuetakoak.

Haizu diren jarduera bakarrak bulegoak dira.

.Kokalekuaren gaineko xedapen bereziak:

Hiriko alde edo eremu batzuetan bizilagunei traba larria egiten zaienean, edo horren arriskua denean, eta hori ondoko zerrendan agertzen diren lokaletara jendea sartzeagatik gertatzen baldin bada, eta lokal horiek gaueko hamarretatik goizeko zortziak bitarteko

ordutegian aritzeko legezko baimena badute, Udalak, behar diren txostenak egin ondoan, neurri hauek hartzen ahalko ditu:

1. Kasuan kasuko eremu edo sektorean irekitzeko edo aritzeko lizentzia gehiago emateko debekua.
2. Moldatu nahi diren lokal berriak paratzeko gutieneko distantziak ezartzea, bai jadanik baimena dutenekiko, bai beren artean.
3. Mugak ezartzea lehenagotik zeuden establezimenduak nahiz hemendik aitzina baimen daitezkeenak irekitzeko edo aritzeko ordutegietan.

Neurri berdinak ezarriko dira halako eremu batean gisako jarduerak, lehenagotik zeudenak, metatzen direnean, trafikoaren pilaketa eragiten badute, edo horrelako egoera ekartzeko arriskurik bada, dela hirigintzako antolamenduagatik, dela auzoaren egoeragatik, dela eremuko bertze edozein ezaugarriengatik.

Xedapen berezi horiek ondoko jarduerari aplikatuko zaizkie: Ostatuak, kafetegiak, pubak, jatetxeak, garagardotegiak, pastel-dendak, elkarte gastronomikoak, gisakoak, besta aretoak, drugstoreak, bingoak eta josteta aretoak.

Kasuan kasuko erabakiak Udalak hartu beharko ditu osoko bilkuran, bakoitza oinarritzen duten arrazoiak ikusirik, eta xehe-mehe zehaztu beharko dute zein diren ukituriko eremuak eta establezimendu motak, baita distantziak, ordutegiak eta gainerako datu egokiak Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu arte ez dute indarrik izanen.

Emandako xedapenetan arau-haustea egitea larritzat hartuko da beti, eta zehapenik handiena ezarri zigortzen ahal dira, lizentzia bertan behera uztea barne, edo behin betikoa, berreroriz gero. Beti ere espedientea izanen da, eta haren barnean entzutea emanen zaio interesatuari.

Araudi horretan jasotzen ez diren kasuetan Udalak erabakiko du.

V. ZARATAK ETA DARDARAK

8. art. Muga orokorrak.

Ostalaritzako establezimenduek musika ekipoak, telebista aparatuak edo gisakoak badituzte, soinu potentzia apaltzeko gailua paratuko dute, ezarritako soinu mailak gainditzen dituztenean musika ekipoen soinua pikatzeko.

9. art. Aurreneurriak.

.Leihoko egokigailu autonomoak:

Estetika kari eta oinezkoei -dela asots, dela ur zihatze, dela bero igorpen- trabak galaraztearren, debeku da fatxadetan paratzea.

Hori gora-behera, zaratei buruzko muga orokorrak beteko dituzte.

.Soinua instalatzeko baimen bereziak:

Alkatetzak baimenduta, baimen bereziak ematen ahal dira jaiak, kontzertuak, megafonia mugikorra ibilgailuetan eta antzeko jarduerak egiteko.

.Obrak:

Debeku da obrarik egitea goizeko zortziak aurretik eta gaueko hamarrak jo ondoren.

.Motoredun ibilgailuak:

Trakzio mekanikoko ibilgailu guztiek funtzionamendurako baldintza onetan edukiko ditu motorea nahiz bertze organismoak, transmisioa, karrozeria, etab., zirkulatzerakoan egingen dituen asotsak eta dardariketak ahalik eta txikienak izan daitezten.

Berehalako arriskua dagoen kasuetan izan ezik, hirigunean debeku da klaxonak erabiltzea.

Zamalanak nahiz materialen garraioa, banaketak egiteko ibilgailuetan, trabarik ez sortzeko maneran egingen da.

Banaketa egiteko ibilgailuetarako, paketeak banatzen dituztenetarako eta antzekoetarako izan ezik, industriek zamalanak beren lokal edo lurzatiaren barruan egin beharko dituzte.

.Alarma akustikoak:

Haizu diren alarma akustiko bakarrak segurtasun zioengatik beharrezkoak diren suteen aurkako instalazioetakoak izanen dira. Horrelako kasuetan baimena eskatuko zaio Udalari eta erakunde hori izanen da ezarpena beharrezkoa den ala ez ebatziko duena.

VI. ATMOSFERAREN KUTSADURA

10. art. Muga orokorrak.

Indarrean dagoen arautegia beteko da, bereziki ondoko hauek:

-1972-12-22ko Legea, Eguratseko Ingurugiroa Babesteari buruzkoa.

-1975-2-6ko Dekretua, aitzinekoa garatzen duena.

-1976-10-18ko Agindua, Eguratseko Industri Kutsadurari aitzintzeari eta zuzentzeari buruzkoa.

-1985-1-8-ko Dekretua, Airearen Kalitatearen Arauei buruzkoa, Sufre Dioxido eta Partikula

Instalazio berriak.

Debeku da Olaztiko udal mugartean orokorrean kutsatzaileak diren jarduerak instalatzea eta, bereziki, 1972-12-22ko Legean sartu eta 95-02-06ko Dekretuaren bidez garatu eta ustez eguratseko kutsatzaileak diren jardueren katalogoko A eta B taldeetan sartu direnak. Horietatik salbu daude nekazaritza eta nekazaritza-industriako jarduerak (A taldea, 1.13. idatz-zatia; B taldea, 2.13. idatz-zatia) eta elikagaien industriakoak (B taldea, 2.8. idatz-zatia).

Halaber, debeku horretatik salbuetsi dira ordenantza hau indarrean jarri denean indarrean egon diren A eta B taldeetako jarduerak eta baita horien geroko zabalkuntzak ere.

Usainak.

Usainak, nahiz eta toxikoa ez izan, maila batzuk eskuratzen dituztenean benetako ondoeza eta kalteak eragiten ditu jendearen artean.

Badaude metodoak, zailak ez direnak, usainek ingurugiroan ustez duten eragina neurtzeko. Balorazioa ondoko alderdi hauek kontuan hartuz egiten da:

a) Usainaren kalitatea: Irizpide orokorrak daude usainak onak, txarrak edo ez bata eta ez bestea direla sailkatzeko. Intentsitate jakin bat gaindituz gero usain bat erasokorra dela esaten ahal da.

b) Usainaren intentsitatea: Olfatometro izeneko gailuak erabiliz neurtzen ahal dira.

c) Usainaren iraupena.

d) Usainaren maiztasuna.

e) Usaina sortzen den aldia.

Ondorioz, sortzen ahal diren usainek onartzeko modukoak izan beharko dute adierazi diren alderdi horiek oro har hartuta.

11. art. Aurreneurriak.

.Aurreneurri teknikoak:

Keak eta gasak ekoizten dituzten jardueretan eta horiek eguratsera isuriko badira, bermatu egingen da horien osagaiek ez dituztela jasaten diren baloreak gaindituko. beharrezkoa balitz, kea arazteko gailu egokiak edo beste neurri eragingarri batzuk instalatuko dira.

Erregai likidoak erretzen dituzten instalazioetan bidezkotu egingen da erregailu horien aldiroko erregulazioa, eta eragiketa horiek pertsonal espezializatuak egingen du, udalak egingen dituen ikuskapenak gora-behera.

Ondoko erregai hauek haizuko dira:

a) Egur ikatzak eta erregai gaseosoak. Mugarik gabe.

b) Egurrak. 20 Kg/h baino gutiago kontsumitzen diren etxeetan baino ez.

c) Ikatx mineralak. Ondoko beharkizunak beteko dira:

-Sufrea, pisuan %1 baino gutxiago.

-Hegalkorrak, pisuan %10 baino gutxiago.

-Errautsak, pisuan %12 baino gutxiago.

-Hezetasuna, pisuan %5 baino gutxiago.

-Granulometria, pisuan %20 baina 3 cm-ko sarea duen bahea gainditu gabe.

d) Erregai likidoak. Gasoleoa baino ez. Ondoko beharkizunak beteko dituzte:

-Sufrea, pisuan %0,65 baino gutxiago.

-Ura eta hondakinak, bolumenean %0,1 baino gutxiago.

Zilegi da egungo erregaiak erabiltzea ondoko baldintza hauek betez:

-SO₂ko analizagailu jarraikorra eta suspentsioan dauden partikulak antzemateko gailua instalatzea eta horiek Nafarroako Gobernuaren Ingurugiro Kalitatearen Zerbitzuaren Kontrol Zentroari zuzenean lotzea. SO₂ kontzentrazioak ez dira 850 mg./ m.³ N. baino altuagoak izanen. Baldin eta maila horiek gainditzen badira alarma egoera hasiko da.

Debeku da udal lurralde osoan aurreko zerrendan adierazi ez den beste erregairik erabiltzea.

.Industri instalazioak:

Muntadura horien proiektuak eta funtzionamendua Industri Ministerioaren edo, hala denean, bidezko ministerioek arlo bereko araudiari lotuko zaizkio.

Alkatetzak, lizentzia eskabideetan aurkeztu diren proiektuak edo jardunbidean dauden instalazioetan antzeman diren emaitzak kontuan hartuta, kasuan kasuko aurrezko txostenak ere aintzat hartu ondoren, bidezko neurri zuzentzaileak ezar ditzake.

Kebideak.

.Etxeko erabileretarako muntadurak:

Indarra duen araudiari lotuko zaizkio, bereziki Berokuntzaren, Klimatizazioaren eta Ur Bero Sanitarioaren gaineko 1998ko Erregelamenduari.

.Dauden instalazioak: etxeko galdaren muntaduretan, erabiltzen duten erregai gas naturala bada, eraikineko estalkirako ke-irteera bizitegiko tximinia bereizirik eginen da,

halakorik bada. Tximinia bereizirik ez badu, bertzelako aterabideak baimenduko dira, bizitegien erabiltzaileek arazoitu behar dituztenak lehentasun ordena honi jarraikiz:

1. Estalkirako ke-irteera eraikinaren barnetik egitea.
2. Estalkirako irteera barneko patioetik.
3. Estalkirako irteera bigarren fatxadatik.
4. Irteera fatxada nagusitik. Haizu dira, era iragankorrean, harik eta tximinia edo fatxadako irteerak bukatu arte; horrelakoetan beharrezkoak dira galdara estankoak, gas irtenbide derrigortua dutenak.

Irteera horien kokalekua eta diseinua, eta baita aireztapen saretoenak ere, Udalak baimendu beharko ditu.

Aurreko konponbideak debeku dira baldin eta erregai gaseosoak propano edo butano badira.

.Industrian erabiltzeko muntadurak:

A) 1. Ordenantza honen ondoretarako, industriako tximiniak 4 kategoriatan sailkatuko dira, igortzen dituzten ke edo gasen ezaugarri edo etorkien ariora:

-Zero kategoria:

Tximiniei dagozkien sutegiek erregai gaseosoak baizik ez dituzte kontsumitzen, eta ez ohi dute ke ikusgarri jaurtitzen, pizterakoan izan ezik, halakoetan Ringelmannen eskalako 1 zenbakia baino guttiagoko opakotasuna duena jaurtitzen baitute.

-1 kategoria:

Tximiniei dagozkien sutegiek sufre edukia %1eko edo guttiagoko erregaiak kontsumitzen dituzte, eta Ringelmannen eskalako 1 zenbakia baino guttiagoko opakotasuna duen kea jaurtitzen ohi dute, pizterakoan izan ezik, halakoetan Ringelmannen eskalako 1 zenbakia baino guttiagoko opakotasuna duena jaurtitzen baitute.

-2 kategoria:

Tximiniei dagozkien sutegiek sufre edukia %1eko edo guttiagoko erregaiak kontsumitzen dituzte, eta Ringelmannen eskalako 1 zenbakia baino guttiagoko opakotasuna duen kea jaurtitzen dute, pizterakoan izan ezik, halakoetan Ringelmannen eskalako 2 zenbakia baino guttiagoko opakotasuna duena jaurtitzen baitute 10 minutu/ordu 1 baino guttiagoko denboran.

-3 kategoria:

Tximinia hauek Ringelmannen eskalako 2 zenbakia baino guriagoko opakotasuna duen kea jaurtitzen dute, eta 3 zenbakia baino guriagoko opakotasuna 10 minutu/ordua baino guriagoko denboran, berriz, pizterakoan.

2. Mota guztietako fatxada edo patioetatik ez da kerik, gandurik, gasik, lurrinik edo airerik kanporatzen ahal, partikulak baditu harrotuak, edo giroaz bertzeko tenperatura badu. Klimatizaziorako muntadura mugikorrek salbuetsirik daude, 10.000 frigoria/h baino guriagoko potentzia badute eta trabarik sorrarazten ez badute.

B) Garaieraren aldetik, gasak kanporatzeko hodiekin baldintza hauek bete beharko dituzte:

-Zero kategoria:

Tximinia zentroa izanik, 10 metroko erradioan dagoen edozein eraikin baino metro 1 batetik goitiko garaiera izanen dute tximiniek.

-1 kategoria:

Tximinia zentroa izanik, 30 metroko erradioan dagoen edozein eraikin baino 2 metrotik goitiko garaiera izanen dute tximiniek.

-2 kategoria:

Tximinia zentroa izanik, 40 metroko erradioan dagoen edozein eraikin baino 3 metrotik goitiko garaiera izanen dute tximiniek.

-3 kategoria:

Tximinia zentroa izanik, 60 metroko erradioan dagoen edozein eraikin baino metro 5 metrotik goitiko garaiera izanen dute tximiniek.

C) Deskribatutako zirkulu bakoitzaren barnean tximinia bat baino gehiago bada, sailkapen honi doakionean, horietako bakoitzaren gain-gainetik kategoriarako adierazten diren mugek izanen dute indarra.

D) 1. Auzoan eraikin bat egiteagatik eta horren garaiera Udal Planaren Hirigintzako Arauetan aurreikusitako handiena baino gehiago ez delarik, industriarako tximinia edo irteera-hodi batek aitzineko artikuluetan garaieraz ezarritako baldintzak gehiago betetzen ez baditu, eraikin berriaren jabe edo erabiltzaileak behar den obra ordainduko du, delako tximiniak egoera berriari dagokion garaiera izan dezan.

2. Auzoan eraikin bat egiteagatik eta horren garaiera Udal Planaren Hirigintzako Arauetan aurreikusitako handiena baino gehiago ez delarik, industriarako tximinia edo irteera-hodi batek aitzineko artikuluetan garaieraz ezarritako baldintzak gehiago betetzen ez baditu, eraikin berriaren jabe edo erabiltzaileak behar den obra ordainduko du, delako tximiniak egoera berriari dagokion garaiera izan dezan.

3. Tximiniak edo irteera-hodiak 50 metroko erradioko auzo etxeak baino 10 metro gorago badira, jabeak behar den tximistorratza paratuko du delako tximinia edo irteera-hodietan.

E) 1. Tximiniak eta haietara lotzeko hodiak hustu behar dituzten materialak jasateko moduko material gogor eta inerteak erabiliz eraikiko dira eta era egokian isolatuko dira atal guztietan, jardunbideak elementuak ez kaltetzeko moduan.

2. Ke edo gas beroak husteko tximiniak eta inguruko gela edo tokietako horma ukituen artean 5 cm-ko tartea egonen da, edo horren baliokidea den isolagailu termikoa.

3. Adierazi diren tximinia horiek ondo tiratuko dute, baina ke edo gasen abiadura gehiegizkoa izan gabe, ahotik ordenantza honetan ezarri diren mugen gaineko gai, errauts edo partikularik atera ez dadin.

4. 1976ko urriaren 18ko Industria Ministerioaren Aginduan sartu diren jardueretarako ke edo gasen irteerarako bidean laginak hartzeko erregistroa egonen da, agindu horren III. eranskinean ezarri denaren arabera eginda. Horren barrukoak ez diren jardueretarako gasak sartzen diren tokiko eta turbulenzien aldeko (ukondoak, atal aldaketak, lotuneak, etab.) horren ebakiduraren gehieneko izaria bider lauko erregistroa izanen du.

Gasa, lurrina, kea, hautsa edo gandua sorrarazten duten jarduerak.

a) Gasa, lurrina, kea, hautsa edo gandua sorrarazten duten jarduerak egiteko lokalak behar bezala egokiturik egonen dira, industri ustiategien barnean haien kontzentrazioerik handienak ez daitezen izan Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskugarrien gaineko Erregelamenduaren 2. eranskinean eta Laneko Segurtasun eta Higienearen 1971ko Ordenantza Orokorrean agertzen diren zenbatekoak baino gehiago.

b) Gandua edo gas gogaikarri eta usaintsua egozten ahal duten eragiketa lokal egokituetan egon beharko dira, kanpoan suma ez daitezen. Neurri hori aski ez bada, erabat itxirik egon behar dute, eta airea bi kategoriarako adierazi ezaugarriak dituen tximiniatik kanporatzen dela.

c) Eragiketa horiek jario narritagarriak edo toxikoak eragiten badituzte, lokal erabat itxietan eta zokogunekoetan egin behar dira, ez daitezen gasak edo produktuak kanpora. Araztu ondotik, Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskugarrien gaineko Erregelamenduaren 2. eranskinean agertzen diren zenbatekoak halako bi baino guriagoko kontzentrazioa bermatzearen, hiru kategoriarako zehaztu ezaugarriak dituen tximiniatik kanporatuko dira.

d) Gai harrotuak kaltegarriak, toxikoak edo narritagarriak badira, kanpora egozten diren gasetan haien kontzentrazioek aipatu eranskineko C lerroaldean agertzen direnak baino tikiagoak behar dute izan, eta kanporatzeko hodiak hiru kategoriarako tximinetarako adierazi ezaugarriak izan behar ditu.

e) Hautsa sortzen edo botatzen duten jardueren lokalak garbitasun oso eta etengabean atxiki behar dira, eta hautsa gainean jalkitzeko arriskua duten aldeak behar den

maiztasunez eskobatuko dira, aldez aurretik urez ziprztindu edo zerrauts hezea nahiz gai higroskopikoak, hala nola kloruro kaltzikoak, hedatu eta ondoan. Hautsari antzemateko gailuz hornituko dira eta hori ez da eguratsera egozten ahalko, lehenago arazketarik egiten ez bazaio muga onargarrien barnean harroturik dauden gaien edukia murrizteko.

f) 1. Ordenantza honetan arautzen diren muntadura guztietan galdatzekoa izanen da eguratsera egozten diren gasek ezin izatea hauts-bildu nabarmenik osatu paretaren edo zoluaren gainean.

2. Xehatzeko makinek, langargailuek edo hautsa, gaindua, etab. sorraraz dezakeen bertze edozein gailuk bilketa gailuak izan beharko dituzte, ingurunean barna garraiatzea eragozteko. Ez dira eguratsera egozten ahalko, lehenago arazten ez badira muga onargarriak gainditzen ez direla bermatu beharrez.

g) Su har dezakeen hautsa edo gasa bada, behar diren neurriak hartu behar dira, pizt litekeen sua haien bitartez heda ez dadin.

Muga orokorrak.

Derrigorrez beteko dira ondoko arau hauek:

-Eguratseko Ingurugiroa Babesteari buruzko Legea (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 1972-12-23koa)

-83371975 Dekretua, (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 1975-4-22koa).

-Industria Ministroaren 1976ko urriaren 18ko Agindua (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 1976-12-03koa).

-Arestian adierazi diren lege horietan bildu ez diren baloreei doakienean EEBBetako U.5. Environment Protection Agency (EPA) delakoak ezarri dituen baloreak hartuko dira kontuan.

VII. ISURKETA LIKIDOAK

12. art. Isurketen arauketa.

.Isurketak ingurunera:

Isurketak ingurunera dira udal kolektore batera edo ibilgu publiko batera ez doazenean, zuzenean ingurunera baizik, osoki nahiz partez lurrean iragaziz, grabitatearen indarrez beheragoko koteetara -ibilgu publikoetakoak, normalean- behehitzen diren bizkitartean. Honelakoetan, gutienez ere, ibilgu publikoetara egiten diren isurketa zuzenatarako finkatu igorpen mailak bete behar dira gutienez.

Halaber, gutienez eta isurtzeko maila bezala, aurreko paragrafoetan herri ibilguetan egiten diren isurketa zuzenatarako ezarri diren inmisio mailak beteko dira.

Arrunt debekaturik dago estoldetara zuzenean nahiz zeharka botatzea:

-Gai solidoak eta lingirdatsuak, estoldetako ur joairan oztopo edo hustuketa sareko zainketa eta garbiketa lanei traba egiteko adina, hala nola errautsa, kedarra, harea, lokatza, ahotza, txirbilak, zerrautsa, metalak, Beira, trapuak, lumak, bikea, plastikoak, zura, zaborrak, zimaurrea, animalia hondakinak, ileak, baxera piezetako zatiak, paperezko ontziak eta gisakoak, osorik nahiz puskaka izan.

VIII. SUTEAK ETA EZTANDAK

13. art. Muga orokorrak.

Eraikintzari buruzko oinarriko Arauan: Eraikinetan Suteetatik Babesteko Baldintzak eta indarrean dauden foru arauak beteko dira.

14. art. Materialak hautatzeko irizpide orokorra.

Material eta eraikuntza sistemek Nafarroako Gobernuaren Suitzaltze eta Salbamendu Zerbitzuak kasu bakoitzerako ezarri dituen irizpideak beteko dituzte; horretarako, bada, beharrezkoak bada bidezko kontsultak egingen dituzte.

15. art. Instalazioak nabe itsatsietan.

Horrelakoetan ez dira haizuko ondoko hauek:

-Berez arrisku gradu handia duten jarduerak (Qp 800 Mcal/m³ baino handiagoa).

-Leherkariak biltegitratzea edo eskuztatzea.

-Jarduteko arrisku handia duten produktuak biltegitratzea edo eskuztatzea.

Berez arrisku baxua edo ertaina duten jardueretan suteen aurkako bidezko neurriak zuzkituko dira, beti ere erabilera bakoitzaren egoerak eta arriskuak kontuan hartuta.

Nabe bakoitzak sute-arlo lokabea eratuko du.

Mehelinak eta egiturazko elementu amankomunak, baldin eta erabiltzaileak desberdinak badia, sua jazartzeko prestatuak egonen dira, gutxienez 120 minututan.

Baldin eta mehelinak gainalde bakarraren azpian badaude, horren zuaren aurkako jazargoa, metro bateko zabalera izanen duen errenkan, gutxienez 60 minutukoa izanen da.

16. art. Instalazioak nabe lokabeetan.

-Berez arrisku gradu handia duten jarduerak (Qp 3.200 Mcal/m³ baino handiagoa).

-Leherkariak biltegitratzea edo eskuztatzea, baldin eta aurrez nahi gabe gertatzen ahal den eztagandaren emaitza mekanikoak ezabatzeko aurrearreta eta babes neurriak hartu gabe badaude.

-Hori gora-behera, suteen aurkako bidezko neurriak hartuko dira, beti ere erabilera bakoitzaren egoerak eta arriskuak kontuan hartuta.

IX. XEDAPEN ERANTSIAK

17. art Birkalifikazioa.

Halakotzat hartuko da jarduera sailkatuaren espediente osoaren tramitazioa, jadanik paratutako jardueri badagokie.

Honelakoetan nahitaezkoa izanen da birkalifikazio espedientea tramitatzea:

1.-GOKA Jarduera Sailkatuen Erregelamenduak honela eskatzen duenean, berori baino lehenagoko jardueretarako nahiz horretarako aurreikusitako bertze arrazoi batzuk direla medio.

2.-Jarduera kaltegabeetan gerora etorri edo jakindako arrazoiak agertzen direnean, horiek araubide horretan sarraraztera behartzen badute.

3.-Behar bezala baimenduriko GOKA jarduera sailkatuetan, hasierako espediente eta lizentzian aurreikusi gabeko arriskubide, trabak edo nahasmendu gehiago agertzen direnean.

4.-Ordenantza honen bidez eraentzen diren instalazio txikietarako aurreko paragrafoetan ezarri direnak aplikatuko dira.

Kasu berezietan izan ezik, hilabeteko epea emanen da, gutienez, edo sei hilabetekoa, gehienez, birkalifikazio espedientea aurkezteko. Epe horren barnean ez da aritzeko debekurik izanen.

Birkalifikazioetan, aritzeko debekua emanen da eta muntadurak itxi eta zigilatu: aitzineko epea betetzen ez bada, hasitako espedientea iraungitzen bada, edo GOKA jarduera sailkaturako lizentzia ukatzen bada.

18. art. Eskualdatzeak eta besterentzeak.

Legez balioa duten lizentziak dituzten jardueri dagokienez, eskualdatzeak eta titulartasun aldaketak egiteko eskarietan, jaun alkateak, txosten teknikoak ikusirik behar diren baimenak ematen ahalko ditu, osasun, osasungarritasun eta segurtasun publikoak behar dituen zuzenketa-neurriak eta baldintza teknikoak eguneratuz. Epeak eta baldintzak birkalifikazioetarako adierazitakoak izanen dira, eta ondorio berak izanen dituzte betetzen ez badira.

19. art. Salaketak.

Pertsona natural edo juridiko orok salaketa aurkez dezake ordenantza honen edo GOKA jardueren Erregelamenduari dagokionez.

20. art. Xedapen indargabatzailleak.

Ordenantza honek indarra hartzean, indarririk gabe geldituko dira GOKA jarduera sailkatuen arloan hari kontra egiten dioten udal arauak.